

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AGURAINGO UDALA

#### Behin betiko onespena ematea ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza- ren aldaketari

Udal honek, 2018ko apirilaren 17ko ezohiko osoko bilkuran, hasierako onespena eman zion ondasun higiezinaren gaineko zerga ordenantzaren 1. eranskina aldatzeko espedienteari, eta hura jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onesten da. Beraz, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan xedatzen duena betetzeko, argitaratu egiten da, indarrean jar dadin.

Agurain, 2018ko apirilaren 12a

*Alkatea*

**IÑAKI BERAZA ZUFIAUR**

#### 1. eranskina

Hiri ondasunak direnean, oro har, karga tasa ehuneko 0,35 izango da, erantsitako taulan adierazitako erabileren kasuan izan ezik, horietan karga tasa ehuneko 0,49 izango baita.

Hiri ondasunei aplikatu dakiekeen karga tasa zehazteko, katastroko araudian zehaztutako erabileren arabera, hiri ondasunen sailkapen hau ezarriko da, eta gutxieneko katastro balioa zehaztuko da erabilera bakoitzerako, eta hortik gorakoei gehitutako karga tasa aplikatuko zaie.

Tasa hori 2 taldetik (industria) eta 4 taldetik (merkataritza) balio handiena duten hiri ondasun higiezinaren ehuneko 10ari aplikatuko zaie, erantsitako taula honen arabera.

Erantsitako taula

ERABILERA	KODEA	GUTXIENEO KATASTRO BALIOA
Industria	2	219.841,79 euro
Merkataritza	4	93.475,33 euro

Higiezinak hainbat erabilera badituzte, eraikin edo sail nagusiari dagokion erabilerearen tasa aplikatuko da.

Hiri ondasun higiezinaren erabilera katastroko erroldan dagoena da, urtero higiezinaren katastroak ematen duena eta aurreko taulan jasota dagoena (deskribapena eta kodea). Gainera, Diputatuen Kontseiluaren urriaren 14ko 51/2014 Foru Dekretua ere kontuan hartuko da, zeinak onartzen dituen hiri ondasun higiezinaren katastro balioa zehazteko erabiliko diren balorazioaren arau teknikoak eta lurzoruaren eta eraikuntzen balioen esparru taula.

Erabilera ezberdinak identifikatzeari dagokionez, aurretik zehaztu ez diren alderdietan katastro balioespenetarako ezartzen diren arauak kontuan hartuko dira.

Landa ondasun higiezinaren karga tasa ehuneko 0,3152 izango da.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezinaren karga tasa ehuneko 0,6303 izango da.

Bilketa aldia: udalak ondasun higiezinaren gaineko zerga bi zatitan bilduko du, eta zati horietako bakoitza ordaindu beharreko kuotaren ehuneko 50ekoa izango da. Lehenengo zatia ekainean kobratuko da, eta bigarrena, azaroan.